



INKLUSIOA ETA HERRITARTASUN OSOA

Laburbilduz, Euskadin, bazterkeriaren eta pobreziaren **hazkunde** esperagarriaz haratago, emaitzarik kezkagarriena gizarte-bazterkeria zabaltzea da, batez ere **integratzeko zailtasun gehien** zituzten pertsonen eta familien artean. Joera horrek ohartarazten du krisialdietan bazterkeria azkar handitzen den arren, gerora suspertze eta hazkunde ekonomikoko aldiak etortzeak ez dakarrela bazterketa-maila horiek erritmo berean jaitea (FOESSA Fundazioa, 2022).

Bazterketa **kontzeptu** multidimentsionala da, eta ezin da kausa edo faktore bakar baten arabera azaldu; hain zuzen ere, elkarrekin erlazionatzen diren eta elkar elikatzen duten faktore edo defiziten metaketa batek definitzen du (Subirats, 2014).

Desberdintasuna, gaur egun, bizitza-aukerak eta -baldintzak (errenta, ondarearen eskuragarritasuna eta metaketa, eta gizarte-prestazioak benetan eskuratzea) lortzeari lotuta dago, eta garrantzi berezia hartzen du nortasunak, kide den familiak eta familiarengandik eta gurasoengandik heredatzen den egoerak.



%12,2 gabezia material larria duten etxeetan bizi dira

AROE tasa %15,9ra iritsi da
GINI koefizientea %28koa da



Biztanleriaren %26,1 integrazio-egoera prekarioan dago

Biztanleriaren %17,2 kalteberatasun-egoeran dago
%16 gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak

Iturria: Eustat (2021); FOESSA (2021) (2022), EAPN (2020) (2021)

%19 EHSSko entitateek gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte



- Adierazleen zerrenda osoa
- ESEZ eta GJHekiko harremana

%56 EHSSko erakundeek beste kolektibo kaltebera batzuei ematen diete arreta

Iturria: Barometroa (2021)

Ze dimentsiotan jarri behar da arreta?;



Desberdintasun berri eta zaharrak



Gizarte-bazterketako modu berriak



Aldaketarekiko hauskortasuna eta urrakortasuna



Pobreziaren kutsagarritasuna



Pobreziaren feminizazioa



Profilen aniztasuna

Ze neurritan laguntzen du EHSSak?



%56,2

Erronkari laguntzen dioten erakundeak identifikatzeko erabili diren irizpideak honako hauek izan dira: pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin eta etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten erakundeak izatea, gaueko harrera-zerbitzuak eta prestazio ekonomikoak ematen dituztenak eta eskubideen salaketa eta sustapena bezalako funtzioak betetzen dituztenak.


Iturria: HSSEB (2024)



Zer GJHri eta ESEZri laguntzen dute?



Iturria: geuk egina, Google Irudiak (2023) oinarri hartuta
Ez dago erabilitako grafikoen euskarazko bertsio ofizialik



Iturria: geuk egina, Europako Batzordean oinarrituta (2022)
Ez dago erabilitako grafikoen euskarazko bertsio ofizialik